

Batzorde Paritarioaren bilera: ez dago adostasunik zorra ordaintzearen inguruan

Joan den apirilaren 11ean egin zen Batzorde Paritarioaren bilera hasi bezala amaitu zen Urriko Akordioaren 8. puntuaren inguruan: adostasunik gabe. Dakizuenez, puntu horretan garatzen da 2013ko uztailaren 8tik 2015eko abenduaren 31era bitartean lansarien murrizketen ondorioz sortutako zorraren konpentsazioa. Horren arabera, aurrekontuetan izandako hainbat finantziazio aldaketek (ez irakasleen, kontsultore/orientatzaileen eta ordezkapenen kontzeptuetan) zorraren konpentsazioa ekarri behar dute. Patronalek eta sindikatuok, halere, irakurketa ezberdina egiten dugu zorra ordaintzeko bideratu behar den diru kopuruaren inguruan. Zehazkiago, iritzi kontrajarriak daude hurrengo puntuez:

-2012 urteko egoera: urte horretan langileon diruaz aurreratu zelako lan hitzarmeneko lansari taulen aplikazio osoa. Gogoratu, kobratzeko zorian zegoenean onartu genuela hura beranduago kobratzea hitzarmena 2016ko irailean indarrean jarri beharrean, urtarrilean jartzeko.

-Finantziazioan izandako hazkundera ea kostu sozialarekin edo kostu sozialik gabe kalkulatu behar den

-2015ko azken lauhilabetekoan ordezkapenen finantziazioan izandako igoera (%2tik 3ra) kontuan hartu behar den ala ez.

Beraz, asko eztabaidatu eta gero ez zen aurrerapenik izan eta bakoitzak bereari eutsi zion hurrengo bilera arte. **steilas**-ek sindikatuen arteko bilera egiteko proposamena luzatu zion ELA sindikatuari.

Lansarien erregimena ez aplikatzeko klausula (deskuelgeak) arautzeko prozedura ere ezin izan zen itxi, ez delako mahaira ekarri horren inguruko proposamen zehatzik. Espero dugu hau ere hurrengo bilera batean itxi ahal izatea.

Bizkaiko ikastetxe baten deskuelgea jorratu zen ondoren. *De facto* egina dago eta langileen iritziaren kontra, gainera. Beraz, une honetan ikastetxeak akordioa ez du betetzen. Gainera, bertako sindikatuak egindako azterketa ez dago bat enpresak aurkeztu duen txostenak jasotzen duenarekin. *Kristau Eskolak* hartu du kontuak kontrastatzeko ardura eta ondoren, inplikaturako sindikatuarekin bilera bat burutuko da, enpresak aurkeztutakoek ez dutelako sinesgarritasunik.

Azkenik, lan-poltsaren gorabeherak aztertu ziren, berehala, datorren ikasturtearen plangintzari begira, tresna hau erabilgarria izango delako. Horrexegatik oso kezagarriak dira hainbat datu, zuzendu beharrekoak. Poltsan dauden langileen erdia baino gutxiagok (240tik 110ek) egin du dagokion zertifikazioa, ezinbestekoa bada ere. Gainera, kopuru handi batek ez du zehazten zein kolektibokoak diren, normalean inaktiboak daudelako. Kasu honetan ere, beharrezkoa da kolektiboa adieraztea. Gauza hauek konpontzeko beste abisu bat bidaliko zaie poltsakoei, maiatzak 13 bitartean gauzak zuzendu ditzaten. Beraz, oso garrantzitsua da ikastetxean (berezi Espesialistei) horren berri ematea poltsatik kanpo geratu litezkeelako.

Bileran, **steilas**-ek salatu zuen ikastetxe asko ere poltsatik kanpo daudela, Urriko Akordioak dionaren arabera, behartuta badaude ere. Kasu batzuetan (patronal batean ez dauden ikastetxeen kasuan) ez dira enteratu ez dutelako jaso bidali zitzaizen abisua, baina kasu gehienetan nahi ez dutelako da. Bigarren abisua bidaliko zaie eta ondoren, Lan Ikuskaritzan salatu ditzakegu bere horretan jarraituz gero.

Hurrengo bilera maiatzaren 10ean izango da Bilbon.

www.steilas.eus